

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

## 231

*1944/2022 EBAZPENA, abenduaren 27koa, Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiarena, zeinaren bidez argitara ematen diren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin betiko esleitzen diren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten A1 Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Endokrinologiako eta Nutrizioko Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriako/lanpostu funtzionaleko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloan eskainitako destinoak.*

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusiaren urriaren 21eko 1307/2021 Ebazpenaren bidez, Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorrerako deialdia egin zen A1 Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeari dagokionez I. eranskinean jasotako kategorietarako/lanpostu funtzionaletarako, zeinetan Endokrinologiako eta Nutrizioko Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoria sartzen baita (2021eko azaroaren 8ko EHAA 221. zk.); hain zuzen, prozesu hori Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren eranskinean jasotako oinarrien arabera arautuko da.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 513/2021 Ebazpenaren bidez (azararen 30eko EHAA 238. zk.), Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloko eskaintza argitaratu zen, Osakidetzako zerbitzu-erakundeetan destinoa duten A1 Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeari dagokionez I. eranskinean jasotako kategorietarako/lanpostu funtzionaletarako. Gero, ebazpen hori abenduaren 14ko 570/2021 Ebazpenaren bidez aldatu zen (abenduaren 28ko EHAA 258 zk.).

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren urriaren 27ko 847/2022 Ebazpenaren bidez, argitara eman ziren onartutakoen eta baztertutakoen zerrendak eta behin-behinean esleitu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu sanitarioetako erakundeetan destinoa duten A1 Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Endokrinologiako eta Nutrizioko Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriako/lanpostu funtzionaleko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloan eskainitako destinoak.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren bidez, lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren prozeduraren oinarriak onartu ziren Osakidetza-Euskal osasun zerbitzua Ente Publikoan oinarritzko destinoak betetzeko. Bada, erabaki horren eranskinaren 9.8 oinarrian ezarritakoarekin bat etorritz, epaimahaiak Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Zuzendaritza Nagusiari bidali dio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zerbitzu-erakundeetan destinoa duten 1307/2021 Ebazpenaren I. eranskineko A1 Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldearen kategorien/lanpostu funtzionalen zerrendan dagoen Endokrinologiako eta Nutrizioko Fakultatibo Espezialista Medikoa kategoriako destinoen esleipenari dagokion behin betiko zerrenda. Hortaz, indarrean dagoen legediak langileen arloan ematen dizkidan ahalmenez baliatuta,

#### EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Onartzea, Ebazpen honen I. eranskinaren bidez, A1 Fakultatibo Medikoak eta Teknikoak lanbide-taldeko Endokrinologiako eta Nutrizioko Fakultatibo Espezialista Medikoa

kategoriako destinoak betetzeko Lekualdatze-lehiaketa ireki eta iraunkorraren 2021eko azaroko zikloko onartutakoen behin betiko zerrenda, lortutako guztizko puntuazioaren hurrenkeran. Hain zuzen, destino horiek Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 513/2021 Ebazpenean daude jasota.

Bigarrena.– Ebazpen honen III. eranskinaren bidez argitara emateko agintzea Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Giza Baliabideen zuzendariaren azaroaren 15eko 513/2021 Ebazpenaren II. eranskinean eskainitako lanpostu funtzionalari dagozkion destinoen esleipendunen behin betiko zerrenda, lortutako puntuazioaren hurrenkeran.

Hirugarrena.– Behin betiko esleitutako destinoei ezin zaie uko egin, salbu eta uko egite hori beste administrazio publiko edo osasun-zerbitzu batek egindako borondatezko behin betiko mugikortasun-prozedura baten deialdiaren ebazpenari jarraiki destino bat lortzearen ondorioz bada –Osasun-zerbitzuetako estatutupeko langileen esparru-estatutuari buruzko abenduaren 16ko 55/2003 Legearen 37.4 artikuluan ezarritakoaren arabera– edo izendapen askeko izendapen baten ondorioz bada.

Laugarrena.– Destinoa lortzen duten izangaiek betetzen ari diren destinoa utzi beharko dute, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo hiru egun balioduneko epearen barruan.

Izangaia, oro har, aurreko destinoa utzi eta hiru eguneko epean jabetu beharko dira lanpostuaz, baldin eta lanpostuak herri berean badaude; bost eguneko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko beste herri batean badaude; eta hilabeteko epean, izangaiek osasun-zerbitzuz aldatu behar badute. Langileak, emandako destinoaren bidez zerbitzu aktibora itzultzen bada, hilabeteko epea izango du lanpostuaz jabetzeko, destinoen behin betiko esleipenaren ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik hasita.

Lanpostuaz jabetzerakoan esleipenduna zerbitzu-eginkizunetan, aldi baterako barne-sustapenean edo behin-behineko atxikipenean badago Osakidetzan, 2019ko azaroaren 27ko 9.9.3 apartatuan aurreikusten den epea izango du lanpostuaz jabetzeko. Hala ere, epe hori konputatzeko, betetzen duen destinoa ere kontuan hartu beharko da, azken horren esleipenduna ez bada behintzat. Horrela izanez gero, lanpostuaz jabetuko da EHAAn destinoak behin betiko esleitzeko ebazpena argitaratu eta hurrengo egunean, baldin eta behin-behineko atxikipenean badago, edo, bestela, kargua-utzi eta hurrengo egunean, baldin eta zerbitzu-eginkizunetan eta aldi baterako barne-sustapenetan badago.

Bosgarrena.– Ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitara dadila agintzea.

Seigarrena.– Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluaren 2019ko azaroaren 27ko Erabakiaren 9.8 oinarrian xedatutakoaren arabera, Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Administrazio Kontseiluari. Horretarako, hilabeteko epea izango da, Ebazpena EHAAn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Vitoria-Gasteiz, 2022ko abenduaren 27a.

Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko zuzendari nagusia,  
MARÍA ROSA PÉREZ ESQUERDO.

2023ko urtarrilaren 16a, astelehena

## I. ERANSKINA

513/2021 EBAZPENAREN ZIKLOA

LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ZERRENDA

KATEGORIA: FAK. ESP. ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOKO MEDIKUA

LANPOSTU FUNTZIONALA: FAK. ESP. ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOKO MEDIKUA

Ordena	NAN	Izen-abizenak	Guztira
1	***5092**	Yoldi Arrieta, Alfredo	75,0000
2	***7420**	Espiga Alzola, Javier	75,0000
3	***6045**	Guimon Bardesi, Amada	73,2500
4	***7848**	Ruiz De Azua Arteche, Teresa	57,8384
5	***5041**	Hernandez Hernandez, Jorge Pablo	56,3396
6	***2440**	Antuñano Lopez, Maria Luisa	53,8376
7	***1875**	Molina Salas, Ana Rosa	49,8368
8	***7288**	Sanchez Sanchez, Rebeca	49,2288
9	***1166**	Arosa Carril, Vanessa	48,0872
10	***7843**	Valle Rodriguez-navas, Sara	45,8360
11	***9044**	Perez De Ciriza Cordeu, Maite	43,5022

2023ko urtarrilaren 16a, astelehena

III. ERANSKINA  
 513/2021 EBAZPENAREN ZIKLOA  
 LANPOSTUEN BEHIN BETIKO ESLEIPENA  
 KATEGORIA: FAK. ESP. ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOKO MEDIKUA  
 LANPOSTU FUNTZIONALA: F. E. ENDOKRINOLOGIA ETA NUTRIZIOKO MEDIKUA

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***5092**	Yoldi Arrieta, Alfredo	Donostialdeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Donostiako Unibert. Ospitalea-Donostia/San Sebastián / Zerbitzu Klinikoak-Endokrinologia-Endokrinologia / 2 Txanda-2 txanda Go/A-Ez espezifikoko gehiago	2	
***7420**	Espiga Alzola, Javier	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Endokrinologia-Endokrinologia / Goizez- Goizez eta agenda irakia arratsaldez-Guardiekin	2	
***6045**	Guimon Bardesi, Amada	Uribeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Zerbitzu Klinikoak-Endokrinologia-Endokrinologia / Goizez-Goizez eta agenda irakia arratsaldez-Ez espezifikoko gehiago	2	
***7848**	Ruiz De Azua Arteche, Teresa	Uribeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Zerbitzu Klinikoak-Endokrinologia-Endokrinologia / Goizez-Goizez eta agenda irakia arratsaldez-Ez espezifikoko gehiago	2	
***5041**	Hernandez Hernandez, Jorge Pablo	Bilbao-Basurtuko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Basurtuko Uniberts. Ospitalea-Bilbao / Zerbitzu Klinikoak-Endokrinologia-Endokrinologia / Goizez- Goizez eta agenda irakia arratsaldez-Guardiekin	2	
***2440**	Antuñano Lopez, Maria Luisa	Uribeko ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Urdulizko Ospitalea-Urduliz / Zerbitzu Klinikoak-Endokrinologia-Endokrinologia / Goizez-Goizez eta agenda irakia arratsaldez-Ez espezifikoko gehiago	2	
***1875**	Molina Salas, Ana Rosa	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak-Endokrinologia-Endokrinologia / Goizez- Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	
***7288**	Sanchez Sanchez, Rebeca	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak-Endokrinologia-Endokrinologia / Goizez- Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	

2023ko urtarrilaren 16a, astelehena

NAN	Izen-abizenak	Zerbitzuetako erakundea	Destinoa	HE	Derrig. data
***1166**	Arosa Carril, Vanessa	Ezker.-Enkar.-Gurut. ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Gurutzetako Unibert. Ospitalea-Barakaldo / Zerbitzu Klinikoak-Endokrinologia-Endokrinologia / Goizez- Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	
***7843**	Valle Rodriguez-navas, Sara	Barrualde-Galdakao ESI	Ospitalea (ospitalea eta anbulatorioa)-Ospitaleko arreta - Ospitaleko arreta / Galdakao-Ukansoloko Ospitalea-Galdakao / Zerbitzu Klinikoak-Endokrinologia-Endokrinologia / Goizez- Goizez 08:00-15:00-Ez espezifikoko gehiago	2	2020-12-15